

Elgoibar - 1252. zenb.
XXX urtea - 2022-07-22



TOKIKOM

BARREN

Koloretan datoz santanak



Maria Dolores Astigarraga Barruetabeña

2022ko uztailaren 7an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure Irribarreak eta zure sormenak
egunero inspiratzen gaitu,
eta zure nortasunak familia gisa batzen gaitu.***

Maite zaitugu, amama.



Begoña Blazquez Gonzalez

2022ko uztailaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Eskerrik asko eman dizkiguzun momentu on guztiengatik,
amama Begoña.***

Munduko amamarik onena zara!

Asko maite zaitugu eta beti egongo zara gure gogo-bihotzetan.

Zure familia



VI.URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela.

***Zure oroimena
beti izango da gure bihotzetan.
Maite zaitugu***

Etxeoak



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Juan Luis Mugertza

Idazlea

Zahartzea ez dago adinean



“Urte osoa inoizko parrandarik handiena egiteko itxaroten, eta begiak bildu gabe igaro behar etxeko zuloan”

Gaur, Edurne eta Faustina bakarrik egongo dira etxean, eta pozik daude. Izan ere, nor bere plana egiteko aukera izango du, etxeko inori azalpenik eman gabe. Halarik ere, Edurne ez dago oso lasai, amamaren asmoa entzutean: *“Ez jarri aurpegi hori, neska! Gezurra dirudi!”* Eta orduan, amak aitarekin joan aurretik esandakoa etorri zaio burura *“Ez utzi amamari nahi duena egiten”*. Eguna oso luze egin zaio Edurneri, eta egindako gaueko parranda oso labur. *“Ez zara horren goiz etxera joango, ezta?”*, lagunek. Baina Edurnek ezin du amamaren ardura burutik kendu, eta etxera joan da. Logelara zuzendu ditu pausoak, eta... burukoaren gainean oparitutako untxia ikustean, txarrena pentsatu du. *“Non egongo ote da?”*. Gainera, hartu beharreko pilulak ahaztu egin ditu. Burutik pasatu zaio ordu txikietan amari Nojara deitzea, baina ama ezagututa... Urte osoa inoizko parrandarik handiena auzoko jaietan egiteko itxaroten, eta begiak bildu gabe igaro behar etxeko zuloan. Ertzaintzara ere deitzea bururatu zaio, baina..., zer esan, jubilatuekin eskurtsio batean joan dela, eta... oraindik ez dela bueltatu? *“Mesedez, saiatu lasaitzen!”* Denborak kostata egin du aurrera, baina halako batean, eguerdi aldera, zerrailaren hotsa entzun, eta bihotza dantzan sentitu du Edurnek, eta hantxe ikusi du Faustina Rufinarekin, sanferminetako lepoko gorria jantzita, eta kukurutxoan bildutako txurro sikuak eskuan. *“Non egin duzue lo?”*, Faustinak ilobari harritu antzera begiratu, eta... *“Baina, zer esaten duzu? Iruñeko sanferminetan inork ez du lorik egiten”*. Gero, Faustinak Rufinak lagunduta, egindako parranda polikiago kontatu dio Edurneri. Iruñera joateko, La Estellesa autobusa hartu dute laurogeitaka urteko bi emakumeek. Dirudienek, datorren urtean ez dira joango. Txikituak hartzeko sekulako jendetza zegoen tabernetan, eta horretarako lasaiago herrian. Amari egindakoa ez kontatzeko, aste-sari potoloagoa eman dio xahutzeko, eta zahartzea ez dagoela adinean sinetsita kalera joan da Edurne merezi duen parranda egitera.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Urazandiko Jai Batzordeari egindako lanagatik. Orain dela urte askotako oroitzenak berriro eta errealitate bihurtzen jakin dute. Eskerrik asko!

M.A.A.

Urazandiko jaiak

Idatzi honen bitartez, auzokide talde honek gure eskerrik zintzoena eman nahi dio Urazandi auzoko jai batzordeari eta baita boluntario eta parte-hartzaile guztiei ere, programatutako ekitaldi guztiak puntualtasunez, ordenaz eta kalitatez aurrera eramatea posible egin dutelako. 40 urteren ostean berriro festa izan da auzoan, eta merezi izan du, sortutako giro onagatik eta, batez ere, gazteen parte-hartze izugarriagatik. Mila esker, txalo handi bat eta datorren urtean errepikatzea espero dugu.

I.M.

Eskerrik asko, 'Zerua ta Garia'!

Asociacion Ucraina-Euskadi, Chernobilen Lagunak eta Asociacion Chernobil Elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu pasa den astean, ostegunetik hasita, Mendaron, *Zerua ta Garia* garagardo azoka posible egin duzuen guztioi.

Parte-hartze eta lan handiko lau egun izan dira. Boluntario olatu galanta izan dugu laguntzen. Mendaroko eta inguruko herrietako jendearen erantzuna izugarria izan da. Herritik sortutako ekimena, herriarentzako. Hau da hau biharamun emozionala!

Horregatik, bai barra atzean, aurrean, ekintzetan, plazan, nahiz hitzaldietan parte hartu duten boluntarioei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Bestalde, asko izan zarete ekimen hau aurrera atera ahal izateko zuen ekarpena egin duzuenok; beraz, bidean norbait ahaztu bazaigu, barkatu. Bereziki hauek aipatu nahi ditugu:

Uztargi, Elkar Autozerbitzuak, Galle-tiak, Ameikutz Musika Eskola, Arriola senideak, Mendaroko trikitalariak, Adolfo Jainaga, Xake

Taldea, Avar Eztanda, Kilimon Elkarte, Pelegrin, Asketa, Modelos Arno, Gararock, Arno guraso elkarte, Chocolates de Mendaro, Landa Jatetxea, Luzaide Jatetxea, DJ Esther, DJ Vandeeep, Piztiak, Aterkings, Dawinada, Ellie Jensen, Mugi panderoa, Elorza, Intxausti, Arakama eta Larrañaga trikitalariak, Inma Muguerza, Ane Labaka, Amaia Iturrioz, Idoia Narbaiza, Alain Ulazia, Oihana Tarragual, Ainara Argoitia, Aritz de la Torre, Inna Likarchuk, Anhelina Drozd, Tetiana Hladkova, Lyuba, BRTA, Belaustegi Jatetxea, Pilon Burguer, Mausitxa Gaztak, Elgoibar Art, Atracciones Sanz, Deuko Izarra, Super Amara, Asociacion Odisea, Sanlo Eskubaloia, Solbes Dtribucion, Distribuciones Orba, Luis Candal, CD Elgoibar, Mapfre, Zarta Arkulariak, Ipar Surf eta Skate Eskola, Etxe lan, SD Amorebieta, SD Eibar, CD Alaves, Baque kafeak, Oceta, Lam3, Bennu, Mendaroko Udala, Elgoibarko Udala, Debegesa. Eskerrik asko denoi.

Eta nola ez, ezin dugu bukatu proiektu honen sortzaileak aipatu gabe. Urte guztian zehar buru-belarri aritu dira lau egun hauek edukiz betetzen. Beraien ilusioa herri guztiari transmititu diote eta hasiera batean handi ikusten genuen zerbait, guztiz bete eta gainditu dute. Horregatik, bihotz-bihotzez eskerrik asko, Felix eta Juli!

Asociación Ucraina-Euskadi, Chernobilen Lagunak eta Asociacion Chernobil Elkarte

Datorren urtera arte!

Hainbeste urteren ostean, orain dela bi aste ospatu genituen Urazandiko jaiak, ilusio handiz. Ilusio hori ez litzatete gauzatuko, zuen laguntzarik gabe: Urajai elkartetik eskerrak eman nahi dizkiogu auzoari eta auzotarrei, herriko jendeari ere bai, eta bereziki, jaiak antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Mila esker bihotzez, eta datorren urtera arte!

Urajai elkarte

Oharra

Uztailaren 29an banatuko dugu opor aurreko azken zenbakia. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero (merkatu txikia eta zorianak atalak ez dira egongo), uztailaren 26rako bidali behar da informazioa BARREneko erredakziora.

BARREN

Hasi dituzte Errotaberriko igogailua jartzeko lanak

Abian dira Errotaberriko igogailua jartzeko lanak eta datozen egunotan eskailera mekaniko zaharrak kentzeko garabia jarriko dute. Lan hauek eragina izango dute auzoan: San Roke kaleko aparkaleku batzuk obra guztian zehar erreserbatuta egongo dira, eta eskailera mekanikoak gruz ateratzerakoan, eskailera arruntak ezingo dira erabili. Udaleko arduradunek esan dute auzotarrei ahalik eta kalte txikiena eragiten ahaleginduko direla eta uanean-unean emango dituztela eman beharreko abisuak.

Igogailu berriak 15,55 metroko kota-aldea gaindituko du, eta 630 Kg/8 pertsonarentzat izango da. Aurrekontua 457.322,78 eurokoa da, BEZ kanpo, eta exekuzio-epaia 7 hilabete



ingurukoa da. Udaletik esan dutenez, 2023. urte hasierarako igogailua prest egongo da.

Laguntza ekonomikoa behar duten herritarrei Mintxetarako abonatu-txartela lagatzeko aukera dago

Oporretara doazelako edo beste edozein arazorengatik Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko abonatuak abuztuan abonatu-txartela erabili behar ez badute, aukera dute txartela Olaizaga kiroldegiko edo Mintxetako harreretan lagatzeko, Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL/AES) edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jasotzen duten Elgoibarko herritarren batek erabili ahal izateko. Abuztuan kirol instalakuntzen erabilerarik egingo ez duten herritarrak ekimen honetan parte hartzera animatu ditu Udal Kirol Patronatuak.

Horrez gain, Mugiment txartelaren aukerak ekarri dituzte gogora Kirol Patronatutik: Elgoibarko Kirol Patronatuko abonatuak beste herrietako kirol instalazioetara sartzeko aukera dute, gastu gehigarririk gabe, Mugiment txartelarekin. Txartel birtuala denez, KirolTxartela Mugiment APPa instalatzearekin nahikoa da. Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu bat da, eta guztira 50 udalerrri baino gehiagok hartzen dute parte, tartean Elgoibarko Udalak. www.kiroltxartela.eus helbidean aurkitu daiteke informazio guztia.

Presoen aldeko bizikleta martxa bihar iritsiko da Elgoibarrera

Preso eta erbesteratuen eskubideen aldeko bizikleta martxa bihar iritsiko da Elgoibarrera, eta Elgoibarko Sarek martxa horri harrera egiteko deia egin du. 12:30 aldera helduko da tropela, eta Txankakuako zubian egingo diete harrera.

Horrez gain, Elgoibarko Sare taldekoek jakinarazi dute uztailean ez dutela hilabete amaierako elkarretaratzerik, eta abuztukoa hilaren 26an egingo dutela aurreratu dute, San Bartolome jaietako Gazteen Egunean, 20:00etan, Maalako parkean.

Sanbartolomeen harira, bestalde, presoen eta erbesteratuen eskubideen aldeko bazkaria antolatu dute hilaren 23rako. Maalako parkean izango da, eta bazkaritarako txartelak salgai daude dagoeneko, Jai Alai, Iturri eta Lanbroan, 15 euroan. Bazkalostean, Andoni Ollokiegi musikariaren emanaldia izango da.

San Pedro jaietako errifaren irabazlea agertu da

Idotorbe jaietan egin zuten errifaren zozketako irabazlea Andrea Arriola izan da, 1.352 zenbakiarekin. Janariz eta edariz beteriko orgatila jaso du saritzat.

Berkoa kooperatibak marruskadura-soldadurako makina jarri du martxan, estatuko lehena



Elgoibarko Ibeitarte industrigunean dagoen Berkoa kooperatibak marruskadura-soldadurako makina jarri du martxan, eta era honetako bakarra da Espainian. Joan zen astean aurkeztu zuten makina, eta ekitaldian Jaurilaritzako agintariek ere hartu zuten parte. Iñigo Urkullu lehendakariarekin batera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapia ere etorri zen enpresa bisitatzerara. Era berean, AFM makina-erremintaren klusterreko lehendakaria eta zuzendaria Jose Perez Berdud eta Xabier Ortueta, ere bertan izan ziren. Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Udal ordezkariak ere hartu zuten parte ekitaldian, bai eta IMHko zuzendari Ixaka Egurbidek eta Lortek Zentro Teknologikoko zuzendari Jaione Ganzarainek ere, besteak beste.

Urkullu lehendakariak ziurtatu zuen makina-erreminta "funtsezko" industria-sektorea dela

euskal ekonomiarentzat, eta adibidetzat jarri zuen Berkoa, enpresak dituen hiru printzipioak nabarmenduz: "Berrikuntza, dedikazioa eta gogoa". Kondia-Akoin enpresako langile ohiek sortu zuten Berkoa Machine Tools, 2016ko otsailaren 5ean. Enpresaren hastapenetatik IMHtik irtendako ikasleak batu dituzte enpresara eta egun hamabost beharginek osatzen dute enpresa. Batez ere automozioa, aeronautika eta ekipo ondasunetarako makina-erreminta fabrikatzen du. Marruskadura-soldadurako teknologia gero eta sektore gehiagotan erabiltzen dela ikusita, era horretako makinak fabrikatzaile nagusia izan nahi dute Berkoako arduradunek Espainian. Lehen makina egin ostean, bigarren bat eraikitzen dihardute, honakoa 50 tonakoa, Izar Cutting Tools Amorebietako enpresarentzat.

Kamioi batek eta furgoneta batek istripua izan dute King-kong geltoki parean



Astelehen goizean kamioi batek eta furgoneta batek istripua izan zuten King-kongeko autobus geltoki parean. N 634 errepidean izan zen istripua, Urazandi auzorako sarrera parean. 9:30 inguruan elkar jo zuten bi ibilgailuek, eta horren ostean Urazandirako sarrerako hormaren kontra jo zuen furgonetak. Bi gidariak onik atera ziren.

215.000 euroko aurrekontua izango dute sanbartolomeek, 2019an baino 7.000 euro handiagoa



Abuztuaren 22tik 28ra ospatuko dira aurten San Bartolome jaiak, eta 215.000 euroko aurrekontua izango dute, 2019ko jaiak baino 7.000 euro handiagoa. Honen harira, Udal arduradunek gogorarazi dute gainera 2019ko jaietarako 45.000 euroan handitu zutela aurrekontua.

San Bartolome bezpera egunean hasiko dira jaiak ofizialki, 13:00etan. Elgoibarko Dultzaineroen Taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta beraiek botako dute jaietako txupinazoa udaletxeko balkoitik. Eta une horretatik aurrera, denetariko ekitaldiak izango dira kalean, hilaren 28ra bitartean. "Adin eta gustu guztietarako" 80 ekitaldiz osatutako egitaraua aurkeztu du Udalak, eta festetan ohikoa den moduan, musikak tarte handia izango du. Gozategi, Zea Mays, EME (Elgoibarko Musikarien Elkarte), Puro Relajo, Kantu Kolore edo Rockalean izango dira festak

musikaz girotuko dutenak. Kale ikuskizunak eta kalejirek ere badute lekua egitarauan: Mauxitxa txaranga, Baltzola eta lagunak, Psicoclow, Trapu Zaharra edo Zirika Zirkusen emanaldi eta ikuskizunez gozatzeko aukera izango da.

Aurten Txiki Egunean ez da pilota partidarik egongo, eta profesionalen arteko partidak abuztuaren 24an eta 26an izango dira. 26ko partidak ETB-k emango du zuzenean, eta 22:00etan izango da.

Herritar guztientzako jaiak prestatu dituztela nabarmendu dute antolatzaileek, eta horren harira hainbat neurri hartu dituzte: zenbait ekintzatan lehen ilarak gurgildun aukientzat gordeko dituzte; barraketan 18:00etatik 20:00etara ez da musikarik egongo; Bolatokia eta Mintxetako igerilekuak ardorik gabeko guneak izango dira Txiki Egunean eta Lekueder, buruhandirik gabekoa.

85 bat lagun batuko dira 'Euskara ala Ezkara' jardunaldian

Euskara ala Ezkara Kirolean? izango da aurtengo jardunaldiaren izenburua, eta irailaren 3an izango da IMH Campusean. Kirola, euskara eta Elgoibar izango dira jardunaldiko hiru osagai nagusiak. 85 lagun inguru bilduko dira. Horietatik 65 jardunaldian izena eman dutenak dira; 10 hitzaldiak eman eta mahai-inguruan parte hartuko dutenak, eta beste seiak *Biba zuek!* errekonozimendu ekitaldiko

emakumeak. Errekonozimendu ekitaldia izango da *Biba Zuek*. Elgoibarren kirola sustatzeko lan boluntarioan jardun duten sei emakumeri esker ona azalduko diete antolatzaileek.

Jardunaldia Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu dute elkarlanean. IMH Campusek ere laguntza eskaini die, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du egitasmoak.

Santa Ana jaiak



22 BARIKUA

18:30 Salbea, Azpilgoetako elizan. Udaletxetik abiatuko da korporazioa, txistulariekin.

19:30 Txupinazoa eta Katasorginaren jaisiera. Bizi-Poza txarangak alaituta.

20:00 Jaioberrie ongietorria, udaletxean

23:00 Errietan taldearen kontzertua.

01:00 Esther eta Piu DJak.

23 ZAPATUA

12:00 Bizi Poza txarangaren kalejira.

13:00 Paella lehiaketa, ikastolako jolastokian.

15:00 Herri bazkaria, ikastolako jolastokian.

16:30 Kuadrillen arteko jolasak

18:00 Motxaila Band elektrotxarangaren kalejira

23:00 Playback lehiaketa eta sari banaketa.

00:00 Leize taldearen kontzertua.

01:30 DJ Aritz AP-ren saioa.



24 DOMEKA

11:00 Txirristada handia eta puzgarriak Azpilgoetan.

12:30 Meza nagusia, Azpilgoetan.

13:30 Euskal dantzetako ikasleen saioa, frontoian.

14:30 Bazkaria Aizpe elkartean.

18:00 Haur danborrada, Arno guraso elkarteak antolatuta eta Bizi Poza txarangak girotuta.

20:00 Lisker taldearekin dantzaldia. Afaltzeko etena egin eta 23:30ean itzuliko dira plazara, dantzaldiaren bigarren parterako.

25 ASTELEHENA

11:00 Bergarako erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejira.

12:00 Mendaroko pilota eskolako jaialdia.

12:30 Meza nagusia, Garagartzan.

13:00 'Plazaz plaza' txapelketako emakumeen partidak.

18:00 Elektro txufila elektrotxarangarekin kalejira.

22:30 Nagusien danborrada Mauxitxa txarangarekin.

00:30 Kontzertua: Zopilotes Txirriaos taldearekin.

26 MARTITZENA

10:30 Prozesioa Azpilgoetatik Garagartzaraino, txistulariekin.

11:00 Meza nagusia, Garagartzan.

11:45 Bertsolari eta trikitilarietako kalejira.

18:00 Herri kirolak, frontoian. Binakako aizkolari I. Santana Saria, emakumezkoetan eta gizonezkoetan. Aizkolariak: Hodei Ezepeleta, Patxi Mindegia, Jon Rekondo, Suharri Rodriguez, Julen Larrea, Josean Etxeberria, Nerea Sorondo, Karmele Gisasola, Uxue Ansorregi, Laiene Pikabea.

19:30 Mielotxin folk taldearen musika eta dantza emanaldia.

22:30 Jaien azkena. Katasorginaren igoera.

Indarkeria matxistari aurre egiteko, Etxeratze Kolektiboak antolatu ditu Gazte Asanbladak gaur eta biharko. 01:00etan eta 05:00etan etxera taldean itzultzeko aukera eskainiko dute, eta dei egin diete zerbitzu hori baliatu nahi dutenei zein brigadetan laguntzaile aritu nahi dutenei zehaztutako orduetan udaletxe aurrera agertzera.

Indarkeria matxistaren kontrako behin-behineko protokoloa adostu dute jaietarako Udalak eta herriko zenbait eragilek



Dorleta Lazarobaster (EHBildu), Iñaki Arregi alkatea, Eukene Gurrutxaga (ARNO), Maite Mendikute (Gazte Asanblada), Ainara Egiguren (Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea), Uxue Alonso Berdintasun teknikaria eta Nebgula Gaylan (Emakume Migratzaileen Elkartekoa)

Indarkeria matxistaren kontra egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako protokoloa Mendarora egokitu dute Udalak eta herriko zenbait eragilek, eta behin-behineko protokolo bat sortu dute jaietarako, festak askatasunez eta errespetuz gozatzeko. Herriar eta kolektibo gisa duten erantzukizuna bere eginda jardun dira protokoloaren lanketan Udala, Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea, Mendaroko Gazte Asanblada, Arno Guraso Elkarte eta Mendaroko emakume migratzaileen kolektiboa. Prebentzioan jarri dute indarra, baina

erasoren bat gertatuko balitz, biktimari nola lagundu, erasoari zer erantzun publiko eman eta erasotzailearekin zer egin ere jaso dute.

Era berean, dei egin diete mendaroar guztiei sexu indarkeria matxistaren existentziaz jabetzera eta indarkeria matxistaren kontra konpromiso aktiboa hartzera, herriko jaiak indarkeria matxistik gabeko ospakizun gune izan daitezen, eta haietan pertsona guztiek askatasunez gozatu ahal izan dezaten aisialdiaz, ospakizunez eta gizarte harremanez ■

1. Emakume bat arriskuan dagoela uste baduzu edo erasotua izan dela esaten badizu, ez utzi bakarrik eta galdetu laguntzarik behar duen.
2. Ez epaitu. Ez egin baloraziorik. Ez jarri zalantzan haren hitza.
3. Bilatu haren konfiantzazko norbait eta enpatia eskaini.
4. Galdetu medikurik behar duen. Salaketa jarri nahi badu, lagundu. Ez behartu.
5. Ez hartu erabakirik haren baimenik gabe.
6. Argi eta garbi esaiozu erasotzaileari haren jokabidearen kontra zaudela. Txosnagunean edo jaigunean gertatzen bada, erasoaren

arabera erantzungo da. Betiere, erasotuaren segurtasuna bermatuko da, erasotzailea kanporatuko da eta argiak eta musika itzaliko dira beharrezko arabera.

7. Ez zabaldu gertatutakori buruzko datu edo informaziorik, erasoaren jasan duen emakumeari nola eragin deizaiokeen pentsatu aurretik.

8. Arreta zerbitzurako telefonoak, hemen: SATEVI (24 orduko zerbitzua): 900 840 111. Larrialdiak: 112 (zehaztu beti anbulantzia edo Polizia behar dugun).

SFUSS (Gizarte larrialdietako zerbitzuen koordinazio zerbitzua): 943 224 411
Mendaroko Berdintasun zerbitzua: 747 443 681



Txotxongiloa, Garagartzako plazan, 1931n.

📷 *Gregorio Vivesen bildumatik hartuta.*

■ Hauspoa euskal dantzei

✍️ Aina Argoitia

Izan dute euskal dantzek gaur baino indar handiagoa Mendaron. Hogeita sei lagun aritu dira aurten dantza ikasten Azpilgoetako Kultur Etxeko lokalean, sei ume eta hogeitaz nagusi. Edo beste irakurketa bat eginda, hogeita bost neska eta mutil bakarra, eta uztailaren 24an plazara irtengo dira dantzara, urteetan udaletxeko sotoan gordeta egon diren arropak jantzita. Mimoz prestatu dute jaialdia, badagoelako gogo bat euskal dantzei duten balioa ematekoa eta garai batean Mendaron izan zuten indarra itzultzekoa.

Euskal dantzak ez ditu betiko garai onenak Mendaron. Ez dago sasoi bateko dantzari talde handirik, ez du dantza taldeak garai bateko sonik, baina badago, hala ere, euskal dantzei balioa emateko ilusio bat taldekideen artean eta badago dantza-irakasle direnen konplizitate bat ere, bidea saiatzeko. Herri dantzaria izan delako tradizioz Mendaro. Gerra aurrean, esaterako, 30eko hamarkadan, Gregorio Santa Cruz itzal handiko dantza-maisua (1898-1980) ibili zen dantza erakusten herrian. 1931ko abenduaren 8an, Kontzezio egunez irten zen Garagartzan plazara haren esanetara prestatutako ezpata-dantzari taldea. Mendaroko 1931ko Kontzezio egun hartako emanaldiaren arrakasta erabatekoa izan zela jasota dauka Oier Araolaza dantzari, kazetari eta antropologoak *Gregorio Santa Cruz dantza maisua* liburuan. Jose

Mari Iriondo *Kapain* (1917-2008) eta Gregorio Vives (1944-2022) ere elkarriketatu zituen Araolazak libururako eta hari irakurrita dakigu Kontzezio Eguneko ekitaldi garrantzitsuen izaten zela ezpata-dantzarien emanaldia, harik eta 36ko Gerrak dena eten zuen arte. Gerraostean, 1958an, antolatu zuten estreinakoz dantzari-taldea Mendaron. Jaietarako saragi-dantza atera zuten, eta ordura arte dantzari ibilitako Agustin Berasaluze, Gregorio Vives eta Agustin Lazarobaster txistulari hasi ziren. Dantzari talde hark ere Gregorio Santa Cruz eta haren iloba Fausto Sanz izan zituen irakasle urte askoan. Bizkaiko dantzak ikasi zituzten dantzari gazte haiek Gregorio Santa Cruzekin, eta haietako batzuk, Gregorio Vives eta Jose Maria Zelaia *Bizkai* adibidez, dantza-maisu ere izan ziren gerora, herrian bertan, eta baita Eibarren

ere. Ordurako Gurutzpe kultur elkartean sartuta zeuden dantza taldea eta txistulariak.

Gregorio Vives eta Jose Maria Zelaia izan zituzten dantza-irakasle ondorengo belaunaldikoek, eta tarteka, Gregorio Santa Cruzek ere ematen zizkien eskolak. Joseba Etxeberria izan zen dantza-ikasle haietako bat, gerora Mendarok izan duen herriko azken dantza-maisua izango zena. "Neba-arreba guztiok ibili ginen gu dantzan. Vives eta *Bizkai* izan genituen irakasle, baina zapatu batzuetan Gregorio Santa Cruz ere etortzen zitzaigun. Etxean gordeta izan nuen nik haren dantza-argazkien albuma ere luzaro [Gregorio Santa Cruzen liburua idazteko abiapuntua izan zuen Oier Araolazak]. Bizkaiko dantzak ikasi genituen: txankarrankua, makil-dantza eta halakoak guk, mutilok, eta zinta-dantza-eta, neskek". Garai hartan, Mendaron, futbola beste gauzarik ez zela dauka akorduan Etxeberriak, eta dantzan, neska eta mutil batuta, talde handia zirela. 12 bat urte zituenean, baina, desegin zen talde hura. Bi-hiru urteko etena izan zela dauka akorduan. "15 bat urte bete genituenean, dantza taldea sortzea erabaki genuen kuadrillan eta hasi ginen diru-eskean herriko denda eta enpresetan, orduan gaur baino dezentez denda gehiago ere bazegoelako Mendaron".

Dantzak bigarren edo hirugarren loraldi halako bat ezagutu zuen ondorengo urteetan kuadrilla haren eskutik. "Ez zegoen Mendaron dantzan ez zebilen umerik". Urte onak izan zituen dantzak. Rogelia Horrillori enkargatu zizkieten dantzarako jantzi berriak josteko, ordura arte nor bereekin aritzen zelako, itxuratu zuten taldea eta jardun ziren buru-belarri Euskal Jaia antolatzen ere. "Oker ez banago, urte sasoi honetan izaten zen Euskal Jaia, eta urtero gonbidatzen genituen kanpoko lau-bost talde Mendarora, dantzara. Geu ere joaten ginen inguruko herrietara. Dantza ikaragarri gustatzen zaigu eta oso pozik ibili ginen gu orduan". Dantzarako gogo hark eta dantzari gisa hazi nahi hark eramane zuen Etxeberria Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldera. "Auto-stop eginda joaten ginen Elgoibarrera Juan Arriola *Artañola*, Arrate Iriondo, anaia Aitor eta laurok

entseguetara, eta geroago Mikel Berasategi ere eramane nuen Elgoibarrera. Dantzari dotorea zen". Dantza berriak ikasten zituen Elgoibarren Etxeberriak, eta dozenaka haurrei irakasten aritzen zen gero Mendaron, Gemma Garate eta Maite Txurrukarekin batera. Semea izan aurretxoan laga zuen dantza Etxeberriak, eta igarri zen hutsunea plazan.

Geroztik, Debako eta Elgoibarko dantzariak ibili dira dantza irakasten Mendaron, baina sekula ez du izan orduan besteko indarririk, saiatu diren arren dantza taldearen arduran ibili direnak. Ikasturte honetan, sei ume eta hogeitaz nagusi batu dira astelehenero Azpilgoetako Kultur Etxean dantzan ikasteko. Debako Gure Kai taldeko Amaia Ajuriagoikoa eta Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeko Imanol Arantzamendi izan dituzte dantza-irakasle; "luxuzko dantza-irakasleak", Dorleta Lazarobaster eta Eider Agirre ikasleen esanetan. Gaur arte dagoena "formalizatu" eta dantza taldeari beste bultzada bat emateko asmoz, dantza ikastaroaren ardura hartu dute Lazarobasterrek eta Agirrek. "Behin-behinean, gure asmoa In Leike, aisialdi eta kultur elkarte moduan erregistratuta baina gelditu dagoen elkarte, berriro martxan jartzea delako. Bost bat lagun bagaude talde-eragilean eta ezer aurreratzeko ez bagaude ere, horixe dabilkigu buruan, dantzak ere behar duelako gaur ez duen aterkipe hori", azaldu du Lazarobasterrek.



Joseba Etxeberriaren ikasleak, 1992an.

📷 Ander Zulaikaren bildumakoa.

26 lagun dira guztira gaur dantza-taldean, hogeita bost neska eta mutil bakarra, eta kopuru horrek gogoeta eginarazi die. "Ez dago garai bateko konturik dantzari kopuruan. Gutxi gara, baina tira, helduetan egon da halako susperralditxo bat azkeneko urteotan. Umerik ez dator, ordea,

eta behar ditugu. Mutila ere bakarra daukagu, askok beste balio duena, baina bakarra", gehitu du Agirrek. Badute joera hori iraultzeko ilusia, baina. Santanetarako jaialdi berezia prestatu dute, "irakasleen prestutasun osoarekin". Udaletxean urteetan gelditu diren arropak, bere garian Rogelia Horrillok jositakoak eta 1988. urte bueltan estreinatu zituztenak, haizatzerara atera dituzte eta haiek soinean ditzutela irtengo dira plazara uztailearen 24an, dantzara. "Arropen inbentarioa egitea dugu orain hurrengo lana, gure asmoa arropa horiek herritarren eskura jartzea ere badelako". Baina bestelako nahiak ere badituzte, apurka-apurka gauzatu nahiko lituzketenak. Aurten, ahalegindu dira santanetako jaialdirako txistulariak eta atabalariak inguratzen jaialdiari duintasuna itzultzeko, baina ez dute lortu. Badute arantza bat hor, eta bide bat urratu nahi dute egunen batean herriko txistulariak eta dantzariak elkarrekin plazaratzeko. Erronkak zerrendatu dituzte. Taldea handitzea da bat, eta bereziki mutilak erakartzea. Emakumeek berdintasunaren bidean emandako pausoak agerikoak dira, baina plazan protagonismoa partekatu behar dutenetik gizonezkoak desagertzen hasi dira dantzatik, eta kezkatuta ditu horrek. "Mutilak ere behar ditugu dantzan", azpimarratu dute. Irailerako buruhandiak dantzatzeko ikasteko ikastaroa lotzea ere badute buruan, mutilen batzuk interesa agertu dutelako. Eta aurrera begira amets handiagoak ere badituzte. Dantza eta musika eraikin berera eramatea, espazioa konpartizeak sinergiak sortzeko ere balio duela uste dutelako ■



Sahagi-dantza Azpilgoetan.

📷 Aitor Etxeberriaren bildumakoa.



**Rogelia
Horrillo**

Jostuna

Zuk jositako arropekin irtengo dira aurten dantzariak plazara santanetan. Akordatzen zara noiz josi zenituen eta zeinen enkarguz?

Udaletxetik etorri zitzaidan eskaera. Joseba Etxeberriak zeukan orduan horren ardura. Bera ibiltzen zen dantza-maisu eta akordatzen naiz hark eskatu zizkidala. Jostuna izan naiz ni beti eta arropa asko josi izan nituen aurrez ere herrirako. Etxean josten nuen, kanporako asko. Gogoan daukat neskontzako gona gorriak eta txalekoak josi nituela, eta mutilentzako alkandorak eta prakak josteko ere eskatu zidatela. Arropa asko ziren eta gure amak, Manuela Rayok, eta lagun batek, Felisa Ramirezek, lagundu zidaten.

Gogoan daukazu zein urtetan izan zen?

Ezingo nizuke esan. 1988an izan zela esan dizute? Ba baliteke. Ez dira oso oker ibiliko.

Berezia izango da ba jostunarentzat ere norbere lana luzitzen ikustea, ala? Ikustera joateko asmorik baduzu?

Bai, beti gustatzen da, jakina, eta orduan ere izango zen berezia. Orain, berriz atera behar ditzutela jakiteak ere pozten nau. Ez nabil azkeneko urtebetean osasunez ondo ere, eta gaur ere, nire urtebetetze eguna izanda [uztailearen 14a], begira non nagoen: ospitalean, ingresatuta. Baina, ia ba, uztailearen 24rako plazan egoteko moduan naizen, dantzak ere asko gustatzen zaizkit-eta. Eskertzen diet arropa horiek errekuperatzeko lana egin dutenei ere nirekin akordatu izana, eta baita zuei ere. [Nuria Guerola alabak ere jantzi zituen amak jositako dantzarako arropak eta aitortu du hunkituta jaso duela aurten arropa haiek berriro plazaratuko dituzten berria] ■



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9 - 20850 Mendara
943 756 112 / 636 497 485 - www.iraolagoitia.com



Artisan arrotegia



Etxe-aldaketa zerbitzua



Salmenta eta barietate



Erkarmertua eta kalitate

Ondo pasa jaietan!

TAXI

Kontxi Urain
MENDARO

Mobila:
607 575 728

ehbildu

gora
Santanak!



40 urte zuekin!

LAZKA ERRETELIA
943 756 028
Garaipua, 32 - MENDARO

Ondo pasa santanetan.

OLATZ ILEAPAINDEGIA

UNISEX

625 999 694 / 843 631 213

ABUZTUKO ORDUTEGIA:
ASTEARTETIK LARUNBATERA:
08:30-13:30 (15tik 29ra itxita)

Ondo pasa jaietan!

@olatz_ileapaindegia



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA,
ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialdea SE-5 ● 20850 Mendara
943 741 658 / 639 710 183 ● Faxa: 943 742 346
www.santosypatxi.com ● comercial@santosypatxi.com

TXIRRISTAKA TABERNA

1985

MENDARAZABAL I
MENDARO
TEL: 943 736 139

MILK ESBER, GUCAN
ZERBITZU BONFIANTZAGETIK



ASKETA S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS

943 191952

Ondo pasa jaixetan!!!

LANDER ARANBARRI

Haurren danborradako Danbor Nagusia

  Ainara Argoitia

8 urte ditu Lander Aranbarri Zubiaurrek (Mendaro, 2014), baina oso argi du zer izan nahiko lukeen nagusitan: artista. Musikarako zaletasuna beti izan duela dio haren amak, Vanessa Zubiaurrek, eta beti ibili dela etxean perkusioa jotzen. 2019ko santanetako nagusien danborradan gau osoa eman zuen Josu Motriko Danbor Nagusiaren ondoan Landerrek eta aurten umeen danborradako danbor-joleak zuzentzeko ardura eman diote. Gaitasuna badu, eta badaki, baina urduri dagoela aitortu du. Uztailaren 24an egingo dute Mendaron haurren danborrada, 18:00etan, Arno guraso elkarteak antolatuta.

Nondik datorkizu danborra jotzeko zaletasuna?

Lander: Nire aita Azpeitiarra zen, eta perkusioa eta musika asko gustatzen zitzaidanez, aitak danborrada jartzen zidan beti Youtuben, etxean jotzeko. Danborra jotzen nuen, baina gero, Danbor Nagusia imitatzen hasi nintzen. Orain gehiago gustatzen zait danborrada zuzentzea, danborra jotzea baino.

Vanessa: Txiki-txikitatik gustatu izan zaio asko musika. Ander [aita] soinu-jolea zen eta esaten zion soinua jotzeko, baina honi gehiago gustatzen zitzaion perkusioa. Etxean beti ibiltzen zen danborra jotzen. Eta danborra ez bazen, ateratzen zituen lapiko mordo bat, jartzen zituen denak azpikoz gora eta estalkiak gora begira, eta sortzen zigun bateria halako bat. Han ibiltzen zen jo eta jo egun osoan. Perkusioa gustatzen zaio batez ere, eta orain ere bateria jotzen ikasten ari da Ameikutz musika eskolan. Hainbeste gustatzen zitzaion danborrada, urtero eramaten zuela aitak sansebastianetan Azpeitikoia ikustera, bera ere zalea zelako eta bizi zuelako. Baina Mendaron ere gauero etortzen ginen nagusien danborradako entseguak ikustera frontoira. Harmailtan jarri eta han egoten zen, isil-isilik, Josu Motriko Danbor Nagusiari begirik kendu gabe. 2018ko santanetako entsegu batetik bueltan esan zigun



**■ ■ Nahi nuke
Mendaron Danbor
Nagusia izan
Josu Motrikok
lagatzen duenean ■ ■**

danborra jo baino gehiago danborrada zuzendu nahi zuela berak, Motrikok moduan, eta josi zizkion gure izeko Marisolek [Urrutia] arropak eta egin zion burukoa kuadrillako lagun batek, Vanesa Mateosek. Makilak ere egin genizkion etxean, eta orduak ematen zituen harek denak jantzita, entseguan, telebistari begira.

2019ko santanetako danborrada nagusian Josu Motriko Danbor Nagusiari ere itzala egin zenion. Nolakoa izan zen gau hura?

Lander: Oso polita. Amak esan zidan ea gau horretan Danbor Nagusi jantzita irten nahi nuen kalera, eta baietz erantzun nion. Lehenengo aldia zen kalerako jantzen nuela. Ibilbide osoan ibili

nintzen Josu Motrikoren ondoan, harek egiten zuena egiten, eta frontoira iritsi ginenean ere, bere ondoan jartzeko esan zidan Josuk. Oso pozik nengoen. Momentu batean, Josu jarri egin zen, eta bakarrik aritu nintzen danbor-joleak zuzentzen. Batzuetan begiratzen nuen atzera eta esaten zidan buruarekin ondo ari nintzela. Oso urduri nengoen, baina ondo egin nuela esan zidaten denek.

Vanessa: Oso berezia izan zen egun hura. Ander [senarra] gabeko lehenengo jaiak izan ziren guretzat eta Lander hain pozik ikusteak denok hunkitu gintuen. Josuk ikusi zuenean Lander Danbor Nagusi jantzita berehala esan zion bere ondoan jartzeko. Ez nuen asko usteko Lander animatuko zenik Josuren ondoan jartzera, baina han ibili zen gau osoan bere ondoan. Frontoikoa ikaragarria izan zen. Etxeko guztiok jarri ginen lehen lerroan, eta Josu eseri zenean eta Lander bakarrik gelditu zenean danborrada zuzentzen guretzat ikaragarria izan zen. Ez dugu keinu hori ahaztuko. Oso ondo portatu zen Josu Landerrekin.

Haurren danborradako entsegu eguna duzu gaur. Danbor Nagusi izango zara. Zer sentitzen duzu?

Lander: Pixkat urduri nago, baina pozik. Ez dakit haurrek eta nagusiek berdin joko duten aurten, urte batzuetan haurrenean ez direlako bereizi danborrak eta kupelak, eta galdetu nahi dut hori. Baina atzo gauean entseguan ibili nintzen

*"Pixkat urduri nago
haurren danborradarako, baina pozik
Danbor Nagusia izango naizelako"*

etxean, eta uste dut badakidala. Pixkat urduri nago, hori bai.

Zein da zure ametsa?

Lander: Nik nahiko nuke egunen batean, Josuk lagatzen duenean, Mendaron Danbor Nagusi izan. Prest nago. Eta nahi nuke baita ere bateria jotzen ikasi eta egunen batean txaranga jotzea. Artista izan nahi dut nik handitan. Danbor Nagusi arropa ere pixkat txiki daukat.

Arropa berria eskatzen ari zara, Lander?

Lander: Bai, pixkat estu daukat.

Santanetatik zer beste gustatzen zaizu gehien?

Lander: Buruhandiak eta erraldoiak gustatzen zaizkit asko. Etxean badaukat benetako buruhandi bat, errege magoek Zaragozatik ekarrita. La Forana buruhandia da. Eta lagun batzuek esan didate irailan Zaragozara eramango nautela asteburu batean buruhandiak ikustera. Zuk uste duzu handiak izango direla? Youtuben ikusi ditut, baina... ■



EGUNEKO ZENTROA

ZUREKIN, S.L.



Maria Luisa Fernandez
Nuria Ansuategi
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32
20850 Mendara

Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net



IRIONDO

www.iriondo.com



*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



*Mendaroko Udalak
santana zoriontsuak
opa dizkizue.*



m mendaro
ikastola

Killmon, 2
Tel.: 943 756 141



MENDARO
IKASTOLAKO
TXOKOLOREN
PARTEZ ONDO
PASA JAETANI!

AUTOZERBITZUA

ELKAR

COVIRAN



Ondo pasa jaiak!

Killmon Hiribidea, 5 behea
MENDARO - 943 608 031

Enkarguak hartzen ditugu

Santa Ana eguneko ospakizun nagusia Garagartzara aldatu dute



Santa Ana ermitaren bueltan hasi ohi dute mendaroez uztailearen 26ko eguna, eta berezia izaten da han sortzen den giroa. Aurten, baina, Garagartzara aldatu dute ospakizuna. 10:30ean abiatuko dira prozesioan Azpilgoetatik Garagartzara eta han ospatuko dute meza, bai eta mezaostekoa ere, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Uxue Alberdi eta Eli Pagola bertsolariekin -Amaia Agirre arituko da gai jartzen-. Azkeneko hamabost urtean hiru aldiz jaitsi dute festa behera, 2009an, 2016an eta 2019an, Santa Ana ermita bueltan luizi bat izan zelako 2019an [Trinitaten ospatu zuten orduan], eta eguraldi txarragatik beste bietan, baina aurten arrazoiak beste bat izan da. Ermitako teilatua ez dago egoera onean, eta segurtasunaren izenean han mezarik ez ematea hobetsi zuen parrokoak. [Mendaroko herriak auzolanean konpondu zuen azkenekoz, 1982. urtean, Angel Bazterretxea parroko zela (1936-2019)].

Udaletik, orduan, meza eta ondorengo jaia Santa Anako parkean ematea proposatu zieten aldeei, parrokoari eta Bustiñalde elkartekoei, haiek direlako txosna jarri ohi dutenak, baina aukera horrek ez zuen aurrera egin. Meza Garagartzan emanda, prozesioa behetik gora egitea izan zen Udaletik egin zuten bigarren proposamena, bertsolari eta trikitilarien kalejira Santa Anan hastearren, baina ospakizuna zatitzeak zentzurik ez zuela arrazoitu zuten aldeek. "Santa Anakoa berezia izaten da eta badugu arantza hori, baina aurten hala izan beharko du. Hori bai, espero dugu Santa Ana konpontzea, ez genukeelako hango jaia behin-betiko galtzerik nahi", esan du Borja Rodriguez Bustiñalde elkarteko kideak ■



MIKEL TELLABIDE

Motxaila Bandeko gitarra
joleetako bat

✍️ Ainara Argoitia

Motxaila Band elektrotxararangak hasiko ditu gaur santanak. Bilboko konpartsakide egunean eta Markina-Xemeingo karmenetan jotzetik datoz, eta bihar Mendaron joko dute. Agur itxurako saioa izango da biharkoa.



■ ■ Puztu-puztuta amaituko dugu gure ibilbidea ■ ■

Nola hartu duzue jaiak hasteko eskaintza?

Oso pozik. Ez genuen espero eta sekulako ilusioa egin digu. Taldekideren batek izan du ohore hori aurrez, baina talde moduan jaso dugu orain aukera hori eta sekulakoa da guretzat, are gehiago orain, taldea desegitera goazenean. Puztu-puztuta amaituko dugu ibilbidea.

Biharko Kuadrilla Egunak itxura ezin hobea du ba!

Bai, gu geu sekulako ilusioarekin gaude. Normalean, deitzen diguten lekuetara joaten gara, aukeraketa bat eginda, baina oraingoan ezberdina izan da. Ez genuen amaitu nahi Mendaron jo gabe eta geu joan ginen orain hilabete inguru udaletxera aukera horren bila. Esan genien guretzat gauza handia litzatekeela santanetan jotzea, bereziki Kuadrilla Eguneko bazkalostean, eta beso zabalik hartu gintuzten. Eta ondoren deitu ziguten txupina bota nahi ote genuen galdezka. Sentitu gara maitatuak, herriarentzako garrantzitsuak bagina bezala, eta sekulako ilusioarekin hartu dugu Udalaren proposamena.

Murrizketarik gabeko jaietara itzuliko gara eta inguruko herrietan ikusi dugu zer festa gogoz dagoen jendea. Zer esan nahiko zeniekete mendarorrei?

Goatzeko, jaiak hortarako direlako. Gogorrak

izan dira bi urte hauek eta elkarrekin egoteko aukera guztiak baliatzeko esango genieke. Horixe: goatzeko, eta zentzunez jokatzeko.

Agur itxura du santanetako programan argitaratu duzuen testuak. Zer du esateko Motxaila Bandek?

Mendaron azkeneko joko dugu bihar, bai. Agurra izango da, berezia eta emozioz beterikoa. Uste dut ez garela oso kontziente zer datorkigun bihar, egia esan. Dena ematera irtengo gara eta aurreratu dezakegu magikoa izango dela. Gure lagunak, taldeko sentitzen ditugun denak, akorduan izango ditugu. Aitor Agirrebeña eta Mikel Tarragual adibidez, haiek gabe gaur ez geundekeelako gauden lekuan. Josu Motrikok eta taldekide izandako Enekoitz Zubiaurrek eta Borja Rodriguezek, berriz, gurekin joko dute. Eta baita Andoni Riañok ere. Azkeneko urtean

gurekin jotzea proposatu genion Riañori eta orain zazpi gara, sei beharrean. Musikari ezin hobea da, eta beste maila batean jarri du Motxaila Band. Pena bakarria daukagu: aurretik esan ez izana. Magikoa izango da biharkoa. Motxaila Banden behin betiko agurra Durangon izango da, urriaren 14an. Hasten denak beti izan behar du azken bat eta iruditzen zaigu 15 urte badirela nahikoa urte gurea bezalako elektrotxaranga batentzat ■

Kultur eskaintza

Beteak datoz santanak, iazko murrizketarik gabe, eta orrialde hauetan saiatu gara kultur eskaintzaren handiena batzen. Gonbidatu hauez gain, hiru DJ saio ere izango dira. Gaurko goizaldea girotzeko ardura herriko bi DJri eman diete: Esther eta DJ Pius arituko dira goizaldeko ordubetetatik aurrera Herriko Enparantzan, eta DJ Aritz Ap-k jarriko du musika bihar, Leize taldearen kontzertua bukatu ostean.



Errietan

Uztailak 22, 23:00

Mutrikuarrak dira, zazpi lagunek osatzen dute taldea eta 2018an eman zuten lehen kontzertua Mutrikuko Samikolla auzoko jaietan. Iaz, santanetan jotzekoak ziren, baina azken orduan taldekide batek koronabirusa harrapatu eta bertan behera laga zuten kontzertua. Erritmo biziak eta dantzagarriak jotzen dituzte eta kantu propioak eta beste talde batzuen kantuen bertsioak nahasten dituzte zuzenekoetan. Pandemia garaian sortu zuten pop eta rock ukitua duten zazpi abestiz jantzi zuten lehen diskoa, taldearen izen berekoa, AMEn grabatu zutena.



Motxaila Band

Uztailak 23, 18:00etan

Ez dute aurkezpenik behar Mendaron. Herrikoak dira eta badakite santanetan jotzea zer den. 80ko hamarkadan rock erradikala jotzen zuten taldeen kantuak buruz zekizkiten eta Gazte Asanbladak antolatutako bazkalosteren batean eman zuten lehen jendurrekoa, 2008ko negu aldera. Eta 2009ko santanetan, inon aurrez iragarri gabe, Mendarozabalen agertu ziren Eroskiko gurdia hartuta, kantura. Bide oparo baten hasiera izan zen. Zumaiaiko jaietan jotzeko kontratatu zituzten haren ondotik eta errenkadan etorri ziren gero kontzertu-eskaerak. Beste hainbat gonbidaturekin batera arituko dira herrian.



Leize

Uztailak 23, 00:00etan

1982an Zestean (Gipuzkoa) sortutako rock taldea da eta 1983an eman zuten lehen kontzertua, Iraetan. Felix Lasa (gitarra eta ahotsa), Patxi Carrasco (gitarra), Toño Rodriguez (baxua) eta David Gorospek (bateria) osatzen dute taldea. *Devorando las calles* izan zen argitaratu zuten lehen diskoa (1988, Nola-CRS), eta geroztik beste bederatziko disko kaleratu dituzte, azkena *Cuando te muerden* izenekoa. Euskal rock erradikala deitutakoa egiten dute, 80ko hamarkadako musika.



Lisker

Uztailak 24, 20:00etatik aurrera

Liskerrek ere ez du aurkezpenik behar Mendaron, makina bat urtean etorri delako jaietara. 70eko hamarkadan sortu zuten taldea, Eibarren, Jeiki eta Zima taldeetan ibilitako musikariek eta disko bat ere badute 1979an, Basauriko rock lehiaketa irabazi ondoren, argitara emandakoa. Itoiz eta Errobi taldeekin sarri partekatu zuten agertokia, baina 80ko hamarkadaren hasieran nagusitzen ari zen rock giroan lekurik ez zutela irizita, berbera talde bihurtu ziren. Hasierako kideetatik Josean Saladok eta Jabier Zabalak jarraitzen dute taldean.



Bergarako buruhandi eta erraldoiak

Uztailak 25, 11:00etan

2000. urtean Bergaran sortutako taldea. 4 erraldoirekin hasi zuten beren jarduna, eta gaur egun 6 erraldoi handi, 8 erraldoi txiki, 2 erraldoi ertain, 2 ipotx eta 6 buruhandi eta 4 kiliki dituzte. Adin guztietako ehundik gora bazkide ditu Bergarako buruhandi eta erraldoien konpartsak. Mendarora etorriak dira aurrez ere konpartsa honetako hainbat buruhandi eta erraldoi.



Elektrotxufla

Uztailak 25, 18:00etan

Iazko ekainean Azpeitiko Udalak eta AZTE tabernarien elkarteak Azpeitian antolatu zuten Euskal Herriko I. Elektrotzaranga lehiaketaren irabazleak dira. Hamaika mutilek osatzen dute taldea eta herriz herri dabilta. San Joan bezperan Eibarren aritu ziren esaterako, eta duela bi aste Antzuolan. Mendarora ere herria dantzan jartzeko gogoz etorriko dira Elektrotxuflakoak.



Zopilotes Txirriaos

Uztailak 25, 00:30

Nafarrak dira, Iruñekoak, eta bederatziz lagunek osatzen dute taldea, Impekables taldean ibilitakoak. 2009an sortu zuten taldea, Kojon Prieto y los Huajalotes taldearen esentzia gordetzen dute eta rantxerak eta korridoak jotzen dituzte. Facebooken duten aurkezpen orrian aipatzen dute Kojon Prieto y Los Huajalotes taldeaz gain, Jose Alfredo Jimenez, Antonio Aguilar, Chava Flores, Tijuana In Blue, Bon Scott, Los Alegres de Teran y Paquirrinen eragina dutela. Lau disko dituzte kaleratuta.



Mielotxin

Uztailak 26, 19:30ean

2003an sortu zuten Mielotxin taldea Nafarroako kantagintza eta dantzak ezagutarazteko. Iñigo Aguerrik (Akordeioa, kalinba eta ahotsa), Ismael Yagüek (txistua, alboka, pianoa, txirula, ttun ttuna, panderoa eta koroak), Salva Tarazonak (Bateria, kaxa, bendhirra eta panderoa) eta Xanti Etxeberriak (kontrabaxua) osatzen dute taldea nahiz tarteka beste lagunen batekin agertu oholtzara. Makina bat kontzertu emandakoak dira atzerrian eta sari entzutetsuak eskuratuak dituzte folk musikagintzan. Bost disko dituzte argitaratuak, azkena 2021ean: *Órdago*.





Ondo pasa
Santa Ana jaietan!



LAGUN 943 756 222
BETIKOAK Herriko Enparantza, 14 - Mendarokoa

- Pintxo beroak:** Tortillak (urdaiazpikoa, txorizoa, hegaluzea)
Solomoa edo hirugiharra (Gazta, aukeran)
Txorizo egosia
- Pintxo hotzak:** Urdaiazpikoa - Atuna (maionesarekin aukeran)
Razioak - Kokretak - Patata minak - Txorizoa
Oilasko-hegalak - Rabak
- Ogitartekoak:** Tortillak (urdaiazpikoa, txorizoa eta atuna)
Solomoa (gazta, hirugiharra, piperra)
Hirugiharra
- Hanbursesak**

ORMOLA TABERNA
Azpilgoeta kalea - Mendarokoa

RAZIOAK - PLATER KONBINATUAK



Egin zure erreserba: **943 54 38 29**

LEIRE
JANTZIDENDA

Azpilgoeta, 24
MENDAROKOA
Tel.: 943 033 629
leireariola@gmail.com

Leire jantxidenda
Ondo Pasa Jaietan!

Eraso sozialtarik gabeko jaiak

electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behea - Eibar Ondo pasa jaiak!
943 202 268

morroskillo

ESKOLA KANPAINA -%10

Tel.: 943 033 631
20850 MENDAROKOA (Gipuzkoa)

Ondo pasa jaietan!

Mendarokoa
Haurreskola

Garagartza, 5
943 755 219



Ondo pasa jaietan!



CONSUELO CARRERE

Haizearen literatur tailerreko dinamizatzailea

 Ainhoa Andonegi



2008an jarri zuen martxan Haizea Emakume Taldeak literatur tailerra, emakumeei literaturaz gozatzeko eta ahalduzko tarte bat eskaintzeko, eta dagoeneko 100. liburua lantzerira iritsi dira. 100 liburu, estilo desberdinetakoak, baina guztiak "literatura onekoak", saioa gidatzen duen Consuelo Carrereri esker (Zarautz, 1941). 14 urte pasatu dira sorreratik, eta txikian hasi zena handi bihurtu da epe horretan: taldea sendotu eta handitu egin da, eta gaur egun gizonezkoek ere hartzen dute parte. Haizeatik eskerrak eman dizkiote Consuelori, borondatez hainbeste urtean egiten ari den lanagatik, eta baita liburutegiko arduradunei ere, literatur tailerra aurrera eramateko erraztasun eta laguntza emateagatik.

“Gaia ez zait horrenbeste inporta, literatura ona bada”

Nondik datorkizu literaturarako zaletasuna?

Aitarengandik datorkit. Nire aitak sekulako liburutegia zeukan etxean, eta izugarri gustatzen zitzaion irakurtzea. Askok irakurtzen zuen, eta bere ilusioa zen nik ere irakurtzea, irakurtzeko zaletasuna piztu nahi zuen nigan. Alaba bakarra izan naiz, eta opari asko egiten zizkidaten, ia beti liburuak. Ume-umetatik eduki ditut nire ipuinak, baina horrez gain, aitaren liburutegitik liburuak hartu eta irakurri egiten nituen. Garai hartan ez zen ohikoena, baina gure etxean liburu asko egon dira. Ume-umetatik piztu zitzaidan irakurtzeko zaletasuna. Gero Hizkuntza eta Literatura irakaslea izan nintzen, eta liburu artean jarraitu nuen. Gaur egun ere asko irakurtzen dut; denetarik irakurtzea gustatzen zait, baina beti literatura ona.

2008an hasi zinen Haizea Emakume Taldearen literatura tailerra gidatzen. Nola iritsi zinen Elgoibarrera?

Haizeako kide bat ezagutzen nuen, Begoña Artetxe, eta hark deitu zidan zer asmo zuten

kontatzeko. Literatur tailerra martxan jarri nahi zutela eta ea lagunduko nien galdetu zidan. Hasieran kezka puntu bat izan nuen, sekula horrelakorik ez nuelako aurrez egin, baina baietz esan nion, eta horrela hasi nintzen. Hau izan da gidatu dudana literatur tailer bakarra, eta ez dut besterik gidatuko.

Zein da literatur tailer baten funtzionatzeko modua?

Ez neukanez bestelako esperientziarik, denon artean erabaki genuen gure funtzionamendua. Behin joan nintzen Zarautzen literatur tailer batera ideiak hartzeko, baina oso desberdina zen, eta guk gure moduari eutsi genion. Tailer honen helburua emakumeak literaturara erakartzea izan da, eta Haizeak erraztasunak eman nahi izan dizkie emakume guztiei. Hilero liburu bat lantzen dugu, batzuetan nik proposatzen ditut, beste batzuetan taldekideek, eta erabakia denon artean hartzen dugu. Alde horretatik oso garrantzitsua izan da Udala Liburutegiak eman digun laguntza, Mirenek



[Arozena] eta Maria Eugeniak [Gonzalez] beste liburategietatik lortzen dizkigutelako liburuen kopia. 17 lagun gaude orain taldean, eta 17 kopia izaten ditugu, bakoitzak bere liburua izan dezan, eta hori eskertzekoa da. Aukeratu genuen lehenengo liburua *Rebelión en la granja* izan zen. Liburu erraza da, eta kritikarako aukera handia ematen du. Aurrez irakurrita eduki arren, beti bi aldiz irakurtzen dut liburua, tertuliarako ondo prestatzeko, eta apunteak hartzen ditut, gero tailerrean komentatzeko: autorea, pertsonaiak, narrazioa... Liburuaren testuinguru historikoa ere jasotzen dut, oso garrantzitsua izaten delako hori ondo ulertzea. Gustatu egiten zait eta gozatu egiten dut. Ahal dudan zuku gehien ateratzen saiatzen naiz eta partaideek gustura hartzen dute informazio hori.

Zein motatako liburuak landu dituzue?

Denetariko gaiak landu ditugu, eta autoreak ere oso desberdinak aukeratu ditugu. Nik ipini nuen baldintza bakarra izan zen literatura ona izan behar zuela. Niri literatura ona gustatzen zait. Gaia ez zait horrenbeste inporta, literatura ona bada. Klasikoen zalea naiz, eta iruditzen zait gaur egun ez dela lehenengo moduko literaturarik egiten. Borgesek esaten zuen 100 urte baino gehiagoko liburuak irakurri behar direla, horiek direlako ardo ona bezalakoak, historian iraun dutenak. Baina liburu berriagoak ere irakurri ditugu. Taldeko partaide batzuek ere proposatu izan dituzte nik irakurri gabe neuzkan autoreak, eta oso gustura irakurri ditut. 100 liburu landu ditugu eta esango nuke aukeratu dugun liburu

"Konfiantza daukagu, bakoitzak bere ikuspegia ematen du eta horrek izugarri aberasten du tertulia. Beti ikasten dugu zerbait berria"

bakoitza ondo aukeratu dugula. Normalean hilero liburu bat lantzen dugu, baina liburu batzuk mardulak direnez, bi hilabetez ere landu izan ditugu, *Guerra y paz*, esaterako.

Zer eman dizu literatur tailer honek?

Sekulako gozamen eta satisfazioa eman dit. 100 liburu hauetako gehienak lehendik ere irakurriak nituen, baina tailer honek eman dit aukera liburu bakoitza beste modu baten lantzeko, eta horrekin izugarri ari naiz gozatzen. Adibidez, *Pobres gentes* liburua lehenengo aldiz 14 urterekin irakurri nuen, eta negar zotinka bukatu nuen liburua. Orain berriz irakurri dut, eta ez dut negarrik egin. Urte asko pasatu dira, ni neu ere aldatu egin naiz eta liburuak irakurtaldi bakoitzean gauza desberdina transmititzen dute. Buru-ariketa moduan ere balio dit tailer honek, lan bat eskatzen dit, eta horrek burua argi mantentzen laguntzen dit. Niretzat oso aberasgarria da tailer hau zuzentzea, eta esango nuke taldekideak ere oso pozik etortzen direla. Taldea aldatu egin da urte hauetan guztietan,

baina batzuk hasieratik daude. Eboluzioa nabaritu diet denei, hasieran gehiago kostatzen zitzairen parte hartzea, lotsatuta egoten ziren, baina orain konfiantza handia dugu gure artean eta lasai hitz egiten dute denek. Bakoitzak bere ikuspegia ematen du, eta horrek tertulia izugarri aberasten du. Denetariko jendea dago, bakoitzak bere ikuspegia dauka eta beti ikasten dugu zerbait. Gertatzen zaigu askotan beste baten iritzia entzuterakoan pentsatzea liburu diferentea irakurri dugula. Taldea irekia da, eta nahi duen orok hartu dezake parte. Gaur egun gizonezko batzuk ere badaude taldean, eta ekarpen oso interesgarriak egiten dituzte. P.S. izan zen taldera animatu zen lehen gizona eta izugarri gozatu genuen bere ekarpenekin. Taldea utzi behar izan zuen eta haren falta igartzen dugu.

100 liburu horietatik bat aukeratu beharko bazenu?

Ezin dut bakarra aukeratu! Liburu askok aho-gustu oso ona laga digute. *Un caballero en Moscú* esaterako, oso gustura landu genuen eta izugarri sartu ginen liburuan. Taldekide batek esan zuen bere burua ere imajinatu zuela kondearekin afaltzen Moskuko jatetxe dotore batean. *Drácula* ere ez zuten irakurri nahi, baina insistitu egin nien, eta gero asko gustatu zitzairen. Dracularen bidaia guztia jasotzen zuen mapa bat ere egin zuen batek. Tolstoy eta Dostoievski

autoreak oso gustura irakurri ditugu, baina beste asko ere bai. Pena bat geratu zait: nahi nuen *El Quijote* irakurtzea, baina ez nituen konbentzitu. Lehenengo zatia irakurri genuen, baina osorik ez. Beldurra ematen duen liburua da, baina niri, aldiz, liburu hori izugarri gustatzen zait. Umetan irakurri nuen umeentzako bertsioan, eta nagusitan irakurri nuen bestea. Klasikoen artean onenatarikoa da nire ustez, eta autore bezala Cervantes maisua da. Stefan Zweig-ren liburuak ere oso gustura irakurri ditugu, eta beste guztiak ere bai.

100. liburu 'Las ilusiones perdidas' izan da. Zerbait berezia egin nahi zenuten ehungarrenean?

Nik irakurrita neukan liburu hori eta filma ere ikusi nuen. Elgoibarren eman zutenean filma, taldekideei esan nien ikusteko, merezi zuelako, eta halaxe joan ziren denak Herriko Antzokira. Izugarri gustatu zitzairen eta horrela animatu ginen liburu hori irakurtzera, eta ehungarrena izateko aproposa iruditu zitzaigun. Liburuak filmekin edo ondo datorkion poemarekin osatzea ere gustatzen zait.

Noiz arte jarraituko duzu tertulia hauek gidatzen?

Ahal dudan bitartean jarraituko dut, baina adinean aurrera noa eta Elgoibarrera etortzea gero eta nekezagoa egingo zait. Gustura nago, eta ilusioa daukat segitzeko, baina esan nahi dut ni gabe ere talde honek aurrera segi dezakeela, inongo arazorik gabe.

Tertuliarako 100 izenburu

2008ko azaroan jarri zuen martxan Haizea Emakume Taldeak Literatura Tailerra. Consuelo Carrere zarauztarra dute lagun eta gidari saio horietan: "Musutruk etortzen da, hutsik egin gabe, eta bere onena ematen digu", esan dute Haizeako kideek esker onez. Emakumeak irakurtzera animatzeko eta haien artean iritzia emateko gune bezala jaio zen literatura tailerra, oso modu xumean, denentzako eskuragarri izan zedin, eta horretan Udal Liburutegiaren papera nabarmendu dute Haizeatik. Udal Liburutegiko Miren Arozenari eta Maria Eugenia Gonzalezi ere eskerrak eman dizkiete, hainbeste urtetan emandako laguntzagatik. "Beste literatura tailer batzuk liburua erostera bideratuta daude, baina guk

ez genuen hori nahi, denentzako eskuragarri izatea nahi genuen, eta liburutegiko Mirenek eta Maria Eugeniak taldekide bakoitzarentzako liburuak eskuratu izan dizkigute. Beraien inplikazioa ezinbestekoa izan da tailerrak aurrera jarraitzeko".

Ehun liburu, ehun istorio, ehun tertulia... Ondo janzteko armairua ondo beteta eduki behar dela esaten da, eta ondo irakurtzeko liburu onak behar direla. Haizeako arduradunek esan dute bizitzarako armairua bete dutela tailer honi esker, eta emakume askori euren mundu txikitik irteteko aukera eman diela. Parte hartu nahi duenak, emakume zein gizon, liburutegian bertan eman dezake izena.

Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da gaur, Maalako parkean



Haritz EDT taldeak antolatuta, Nazioarteko Folklore jaialdia izango da gaur, 22:30etik aurrera, Maalako parkean. Haritz dantza taldekoekin batera, Georgiako eta Guinea Bissauko dantzariak hartuko dute parte, eta horri esker, herrialde haietako kultura eta dantzak ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Afrikako

dantzak ekarriko ditu batetik Guinea Bissauko Netos de Bandim Kultur Taldeak, eta Eurasiako doinuen erritmora dantzatuko du Georgiako University taldeak. Haritz dantza taldekoek, berriz, euskal dantzak dantzatuko dituzte. Emanaldiaren lehen zatian Erronkariko ttun-ttuna dantza taularatuko dute, eta bigarren zatian, berriz, Korteko dantzak.

Kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur

Elgoibarko Udalak, Ongarri Argazkilari elkartearekin lankidetzan Elgoibarko Kirol Argazkien lehiaketa jarri du martxan, eta gaur da argazkiak aurkezteko azken eguna. Gaia kirola da, eta partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Informazio gehiago Udalaren elgoibar.eus webgunean aurkituko duzue.

Bertso Eskolan izena emateko epea hilaren 26an amaituko da

Elgoibarko Bertso Eskolan izena emateko epea zabalik dago, eta interesatuek hilaren 26ra arte dute epea. 8-16 urte bitartekoentzat eskolak eskainiko dituzte, eta saioak astelehen arratsaldetan izango dira, ordubetez, Aita Agirre kulturgunean. Irakasle lanetan Eneko Beretxinaga soraluzearra arituko da.

Interesa duenak bere datuak eman beharko ditu Elgoibarko Udalaren Euskara Sailean, telefonoz 943 744 366 zenbakira deituta, edo emailaz euskara@elgoibar.eus helbidera mezu bat bidalita.

Sallobenteko jaietara autobusez joateko eskatu dute antolatzaileek

Abuztuaren 6an ospatuko dituzte aurten Sallobenteko jaiak. Egun osoko egitaraua prestatu dute auzotarrek, eta ume zein nagusientzako ekitaldiak izango dira: Bertsolariak, Niala magoa, erromeria, bolo txapelketa... Aurten, baina, ez da autoa aparkatzeko lekuri egongo, eta autobus zerbitzua jarriko dute goizetik hurrengo eguneko goizaldera arte. Arduradunek espreski eskatu dute auto partikularretan ez joateko, ez delako aparkatzeko lekuri egongo.

Abuztuaren 10ean, San Lorentzo Egunean, meza egongo da eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Sargoateko erromeria, domekan

Datorren domekan, uztailaren 24an, egingo dute erromeria Sargoaten. 11:00etan auzoko elizkizuna egingo dute. Ez da apaizik egongo, baina auzotar batek emango du meza. Segidan, trikitilariak egongo dira, eta salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Urazandiko jaiak, errealitate bihurtuta

40 urteren ondoren, errealitate bihurtu dituzte berriz ere Urazandiko jaiak. 80ko hamarkadan antolatu zituzten jaiak Urazandi auzoan, hiru urtetan, eta orduko oroitzapenetatik tiraka, aurten berreskuratu dituzte auzoko festak. Eta ez edozein modutan, gainera. Asteburu osoko jaiak izan dituzte, eta ekintzak ere askotarikoak izan dira. Antolatzaileak "pozik" geratu dira auzotarrek eta herritarrek oro har eman duten erantzunarekin, eta hurrengo urtean jaiak segida izango dutela aurreratu dute. Argazki gehiago: barren.eus





ELKARTASUN UHOLDEA

✂️👤 Ainara Argoitia

Jendetza handia ibili da Mendaron 'Zerua eta garia' ekimenaren bueltan garagardo azokak iraun duen lau egunetan. 35 eragile baino gehiagok babestu dute ekimena, hoguei ekintzatik gora antolatu dituzte, ehunka lagun batu dira otorduetan eta boluntarioek euren onena eman dute ekimena arrakastatsua izan zedin. Datuok eskutan hartuta, balorazio ezin positiboagoa egin dute antolatzaileek eta eskerrak eman dizkiete babesle eta boluntarioei, bai eta egunotan Mendarora gerturatu diren guztiei ere. Bi helburu zituen azokak: Ukrainiako egoera ezagutaraztea eta ahal zen diru gehien batzea hiru elkarterentzako, eta diru-kontuak itxi gabe badituzte ere, oso pozik daude bildutakoarekin antolatzaileak zein elkarteetakoak. Argazki gehiago: barren.eus






ANGEL QUINTANA

Mendi lasterkaria

✍️ Asier Orbea

Ehunmiliak mendiko lasterketan parte hartu zuten 487 partaideetatik (467 gizonetako eta 20 emakumetako) erdiak ailegatu ziren helmugara. 168 kilometroko lasterketa honen gogortasunaren berri ematen duen datua da. Elgoibarren lan egiten duen Javi Dominguez gasteiztarrek lortu zuen garaipena, proba honetan lortzen duen seigarrena, 23:04:06ko marka eginez. Angel Quintana izan zen proba amaitu zuen elgoibartar bakarra eta bere estreinako parte hartzean 51. postuan sailkatu zen, 31:41:11ko denborarekin. Bere bizipenen berri eman digu orriotan. Era berean, Goierriko Bi Handiak proban (88 kilometrokoa) parte hartu zuten bost elgoibartarrek lortu zuten proba bukatzea (horien emaitzak eta Angel Quintanari eginko elkarriketa osoa barren.eus webgunean irakur dezakezue)



“Azken zazpi urteetan pilatutako eskarmentuaren emaitza izan da Ehunmiliak proba bukatzea”

Estreinakoz hartu duzu parte Ehunmiliak mendiko lasterketan, eta amaitzea lortu duzu. Zein zen 168 kilometroko proba bat osatzeko zure plana?

Ni moduko saltakari amateur batentzako modu bakarra dago horrelako proba bati aurre egiteko: lasai, oso lasai, hastea eta uneoro indarrak kudeatzea eta gordetzea, bestela suizidio bat da. Esku-frenoari bi eskuekin helduta egin nuen probaren lehen zatia. Eta lehen zatia diodanean lehen 100 kilometroez ari gara, pentsa! 147. postuan-edo nindoan probaren erdi aldera, eta atzetik aurrera eginez 51. postuan amaitzea lortu nuen. Dorsal bat janzten dudak bakoitzean anbizio handiarekin pentsatzea gustatzen zait, eta martxo aldera lehen 25 sailkatuen artean sailkatzea eta 30 orduren bueltan ibiltzea zen nire helburua, baina lanegatik ezin izan nuen nahi adina entrenatu eta banekien zaila izango zela. Proba egunean amaitzearekin nahikoa nuela ikusi nuen. San Adrianeraino ondo heldu nintzen eta Aizkorrira ere bizi igo nintzen, ez

dakit inoiz horren bizkor igo dudak. Otzaurtetik aurrera giharretako arazoak hasi zitzaizkidan eta nola edo ahala bukatu nuen azken zatia.

Burua hotz mantendu behar da orduan.

Bai, eta ez da horren erraza. Nire ohiko erritmoa moteltzea izan da niretzat oztopo handienetakoa. Erritmo arinagoan, azkarrago, joan zaitezkeela jakin, baina zure burua motelago joatera behartzea da zailena, autodiziplina horri eustea kilometroz kilometro eta orduz ordu. Hor sartzen da jokoan burua. Eta, jakina, probak dituen 11.000 metroko desnibel positiboak kudeatzen ere jakin behar da. Probaren erdian dago Txindoki (1.346 m.) eta azken zatian Aizkorri (1.528 m.), igoerarik gogorrena. Eta dena ondo prestatu arren, aukera handiak daude proba ez amaitzeko, detaileetan baitago gakoa. Galtzerdi bat gaizki jantzita badaramazu eta ez bazara konturatzen, urratua egin edo babaren bat atera ahal zaizu, eta akabo!

Nolatan erabaki zenuen Ehunmiliak proban parte hartzea?

Ez da urte batetik besterako kontua izan proba honetan parte hartzearena, azken zazpi urteetan pilatutako eskarmentuaren emaitza baizik. 2015ean hasi nintzen ultra distantziako probetan parte hartzen, Goierriko Bi Handian (G2 Handiak), hain justu ere. Eta era horretako hainbat probetan hartu dut parte azken urteotan: hiru alditan bukatu dut G2H (88 km.) proba, hiru bider Hiru Handiak (101 km.) eta bi alditan Montes de Vitoria (62 km.), batzuk aipatzearen. Nire proba fetitxea, baina, Beasainen jokatzeko den hau da. 2014an joan nintzen zuzenean estreinakoz ikustera, nire lagun Unai Etxeberrriak eta Mikel Gorritik hartu baitzuten parte. Haiek animatzera joan nintzen eta probarekin liluratuta itzuli nintzen. Horrenbeste, hurrengo urtean hartu nuela parte estreinakoz G2 Handiak proban. Julen Salaberria, Haritz Arribillaga eta Mikel Arosarekin batera eman nuen izena. Elkarrekin entrenatzen hasi ginen eta giro oso ona sortu zen gure artean. Gu animatzera etorri ziren lagunak gaez, eta babesa eman zigun furgoneta bat ere izan genuen. Horregatik-edo, nire proba kuttuna bihurtu zen, erreferentziatzkoa. Hurrengo urtean, 2016an, ezkontza bat eduki nuela eta ezin izan nuen G2H proba korritu, baina ikustera joan nintzen, eta Ehunmilak probakoen irteera ikusi nuenean parte hartzea itzela izango litzakeela

esan nion nire buruari, inbidiaz. Orduan erabaki nuen 35 urterekin egingo nuela nire lehen Ehunmilak lasterketa. Gainera, trilogia osatzea da nire asmoa, G2H eta Ehunmiliak egin ditut eta Marimurumendi (42 km.) egitea falta zait orain, hiruretan motzena dena. Gaineratu nahi dut antolakuntza primerakoa dela. Kanpoan egin izan ditut ultra distantziako lasterketak, baina hemen halako antolakuntzarik ez dut inon aurkitu.

Sekulako sentsazioa izango zen helmugara aialagatzea.

Bai horixe! Gainera helmugan zain nituen lasterketa guztian zehar babesa eta animoak eman zizkidaten gurasoak, neskalaguna eta baita lagunak ere. Ezustean ere agertu ziren lagunetako batzuek, Iruñeatik, sanferminetatik. Izugarrizko festa izan zen. Esperientzia oso ona bezain gogorra izan da. Ezin daiteke G2H edo Hiru Handiekin alderatu. Agerikoa dirudien arren, oso-oso luzea da!. Horrelako proba luzeetan gertatzen da: bukatzea hain da zaila, ezen bukatzen duzunean sentitzen dena izugarria dela; sentimendu indartsua da. Superheroi bat sentitzen zara denbora labur batean, berehala jaisten dituzun arren oinak lurrera. Lagun askok zoriondu naute bukatzea lortzeagatik, baina oraintxe nabil egindakoa barneratzen, lehen egunak gorputza errekuiperatzen pasa ditudalako.



Urrezko dominak eskuratu dituzte June Loidik eta Julen Urruzolak Espainiako selekzioarekin

Mediterraneoko Jokoetan lehiatu zen June Loidi senior mailako Espainiako eskubaloi selekzioarekin, ekainaren 29tik uztailaren 6ra bitartean, eta urrezko domina ekarri zuen Aljerian jokatu zuten txapelketatik. Guerreras taldeak txapelketa osoan partida bakar bat galdu gabe lortu zuen garaipena. Sailkapen faseko hiru partidak irabazi zituzten Argelia, Tunisia eta Kroaziaren aurka. Finalerdietan Portugal kanporatu zuten eta finalean Kroaziari irabazi zioten, 26-24ko emaitzarekin. Era berean, Julen Urruzolak ere esperientzia aberasgarria bizitzeko aukera izan du junior mailako Espainiako selekzioarekin. Europako Txapelketa jokatu dute Portugalen eta etxeko taldea eta Espainia ailegatu ziren uztailaren 19an jokatu zuten finalera. Emozioz beteriko partida jokatu ostean, 35-37 irabazi zuen Espainiak. Rodrigo Reñones hautatzaileak banan-banan aztertu du taldeko



hamasei jokalariek txapelketan eginiko lana. Julen Urruzolaren inguruan esan du, Hispanos Junior taldeko dorrea edo jokalaria garaiena izan dena amesgaizto bat izan dela talde aurkarien erasoko jokalarientzat, "bereziki Bidasoa-Irun taldean eta selekzioan taldekide duen Eneko Furundarenarekin batera defentsako erdialdean elkarrekin aritu izan direnetan".

Mikel Egañak eta Ander Quintasek irabazi dute Mendaroko padel txapelketan



Mendaroko padel txapelketako finala jokatu zuten zapatuan, Maite Maiora kirolgunean, eta Mikel Egaña eta Jon Gandiaga gailendu ziren Eduardo Agirreren eta Iñigo Aldayren aurka jokaturako neurketan. Gandiagak finalean aritu ezin izan zuen Ander Quintas -titularra- ordezkatu zuen; eta, hortaz, hirurek ospatu dute garaipena. Final handiaren aurretik kontsolaziozkoa jokatu zuten, eta Luis Alfageme eta Juantxo Lopez gailendu ziren Ander Prieto eta Aitzol Arizmendik osatutako bikotearen aurka.

Sigmako pilota txapelketako finalak, uztailaren 25ean

Santiago Egunean, uztailaren 25ean, jokatuko dituzte Sigmako pilota Txapelketako finalak. Eskuz binakako lehen mailako finalean Txurruka IIk eta Berguak Konde eta Agirrebeñaren aurka jokatuko dute. Beteranoetan, berriz, Berazak eta Telleriak Madariaga eta Zubiria izango dituzte aurkari. Azkenik, estreinako azantolatutako emakumeen pala txapelketan Sonia Tomas eta Iratxe Astigarraga, batetik, eta Maria Badiola eta Yolanda Mateos, bestetik, ailegatu dira finalera.





Getaria-Zarautz itsas zeharkaldirako prest

50 urte beteko ditu aurten uztaillaren 24an jokatuko duten Getaria-Zarautz itsas zeharkaldiak, urteko kirol ekitaldi klasiko bat eta igerilari askorentzako lasterketa erreferentea denak. Halaxe da proba prestatzen diharduten elgoibartar mordoxkarentzat ere. Elgoibarko

Igeriketa Taldeko Master taldeko ia 25 igerilarik Getariatik Zarautzera igerian egin zuten uztaillaren 9an. "Baldintza oso onak izan genituen igerian egiteko, eta Zarautzko piraguista taldeko kideei eskerrak eman nahi dizkiegu ibilbidea gurekin batera egin zutelako, babes moduan", azaldu dute.

Aizkolarien Urrezko Kopa jokatzeko txartela eskuratu du Hodei Ezpeletak



Aizkolarien Urrezko Koparen finala jokatu dute abuztuaren 15ean Donostiako Trinitate plazan, eta finalerako sailkatze proban lehiatu ziren Euskal Herriko egungo aizkolari onenak, joan den zapatuan, finala jokatu den plaza berean. Aizkolari bakoitzak 54 ontzako zazpi enbor moztu behar zituen eta Mikel Larrañaga azpeitiarra, Urrezko Kopako egungo txapelduna, izan zen lanak amaitzen azkarrena (14 minutu eta 25 segundo). Irabazlearen atzetik sailkatu ziren lau aizkolariek lortu dute finalerako txartela: Aitzol Atutxa (14:49, bigarren), Iker Vicente (14:56, hirugarren) eta Hodei Ezpeleta (15:42, bosgarren).

IMHko tenis pista berritu dute



IMHko tenis pistan hainbat berritze lan gauzatu ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak: Lurzorua konpontzeaz gainera, pintatze eta errotulazio lanak egin dituzte. Lanok gauzatzeko 3.000 euroko inbertsioa egin dute. 1992. urtean eraiki zuten pista eta erabilera librea eta doakoa izan du 2003az geroztik. Atea zabalik egon da, alegia. "Jendeak, ordea, ez du pista hau tenisean jokatzeko bakarrik erabiltzen, hala beharko lukeen arren, eta azken urtean erabilera desgogiak izan dira: zaborrak, sarearen posteak indarrez puskatu, e.a.", salatu dute Patronatutik. Hori dela-eta, aurrerantzean tenis pistaren ateko giltza Olaizaga Kiroldegian jaso beharko dute erabiltzeek eta amaitzerakoan berriro itzuli.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezkoa den titulua dut eta esperientzia ere bai. Etxeko garbiketa lanak egiteko ere prest. **685 724 861**

Goizez edo gauzez lan egiteko prest nago. Adinekoak zaintzen, garbiketak egiten, sukaldari moduan... papalak legez ditut eta soziosanitario ikastaroa bukatzeaz nago. **643 071 900**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **633 655 519**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **612 540 008**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago, etxeetan, tabernetan, bulegoetan... **612 202 116**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia daukat eta berehala hasteko moduan nago. **643 928 530 (Digna)**

Adinekoak zein gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. **617 571 210**

Eskaintzak

Kultur kafeak jaietarako zerbitzaria behar du. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa da, esperientzia baloratuko da. **665 287 729**

Mendekotasuna duen neska bat zaintzeko pertsona behar da. Titulua izatea, ezinbestekoa. **650 481 345**

OSPAKIZUNAK

1960an jaiotakoen bazkaria, irailaren 24an. 12:30ean Zubi Ondo elkartean batuko dira, argazkia atera eta mokadutxoak egiteko. 15:00etan Sigman bazkalduko dute. 60 euro sartu behar dira irailaren 10erako: ES71 3035 0007 23 0071138822

BESTELAKOAK

Nahaste Borraste proban bizikletako oinetakoak galdu nituen. **652 727 631**

 <p>administradores</p> <p><i>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas</i> Euzkoako Enkainatutako Administrazioen Kontseilua</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Saneamendu-sarea hainbat aldiz trabatu zaigu azkeneko urtean gure komunitatean. Itxuraz, alterazio batzuk izan dira kutxatila komunitarioetan, eta kutxatila batzuk estali ere egin dira. Horrek zaildu egin du kutxatila horien mantentze lanak behar bezala egitea. Jakin nahiko nuke zeini dagokion itxitako kutxatila horiek zabaltzeko lanak ordaintzea, haiek agerian egotea ezinbestekoa delako baldintza sanitario eta aseptikoak eta irisgarritasunari dagozkion beste baldintzak bermatzeko.</p> <p>Kutxatila horiek bistan egon behar dira, beren funtzioa ondo betetzen dutela zaintzeko. Estaltzen badira, lurra behar den beste alditan jaso beharko da eta gastu hori Komunitateak hartu beharko du bere gain, beti ere, komunitatea sortu zenean kutxatila horiek hala zeudela egiaztatuz gero. Hau da, sortzetik gaizki egon direla egiaztatuz gero. Kutxatila horiek gerora itxi badira, baina, itxi dituen bizilagun horren ardura litzateke haiek zabaltzea eta sortutako gastuak ordaintzea.</p> <p>ONDORIOA: Etxean edo bere jabetzako beste ondasunen batean kutxatila horietako bat duen jabea behartuta egongo da horien ardura daramanari etxean sartzen uztera, komunitateak kutxatila erregistratzeko beharra ikusten duen aldiro. Mantentze lan bat egin behar den bakoitzean lurra jaso behar bada, kutxatila itxi dituen jabeak berak egin beharko die gastuei aurre. Izan ere, bere ardura da kutxatila horiek ixten ez direla bermatzea eta ixtekotan erraz zabaltzeko moduko estalki batekin itxi direla bermatzea.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Zorionak, **Noa**, uztailaren 14an zure eguna izan zelako! Oso ondo pasatu genuen zure 3. urtebetetze egunean. Muxu potolo bat, printzesa! Familiakoen partez.




Zorionak, **Naróa**, uztailaren 30ean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Gorka eta Juneren partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi da hainbeste esperotako eguna. 5 urte! Ez daukagu zalantzarik topera gozatuko duzuela! Mila muxu potolo!



Zorionak, **Aimar**, uztailaren 20an 5 urte egin zenituelako, eta zorionak zuri ere, **Julen**, abuztuaren 1ean 2 urte egingo dituzulako. Muxuak, familiakoen partez.

Uztailaren 29ko alean ez dira zorion agurren eta merkatu txikia atalak egongo, sanbartolomeetako ale berezia kaleratuko dugu-lako. Opor osteko lehenengo alea irailaren 2an kaleratu dugu eta beraz, argazkiak eta informazioa abuztuaren 31rako, 12:00ak baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.



LAGUNAK
colchonería textil hogar

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

DESKONTUAK

%20ko deskontua

ehunetan!

EXPRESS ESKAINTZAK!

HAIER XIB 6B2D3FB INTEGRAZIO OSOKO ONTZI-GARBIGAILUA



729 €

- 16 zerbitzu
- 9 programa
- 3. active-pro erretilua
- Goiko saski doigarria

- Hasiera geroratua 23:00ak arte
- Aqua stop sistema
- Wifi
- Bluetooth



Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

22 BARIKUA

22:30 Nazioarteko Folklore jaialdia. Haritz dantza taldeak antolatuta, Maalako parkean.

23 ZAPATUA

10:00 Emakume sahararrek antolatutako te eta hango produktuen dastaketa. Mendaroko Herriko Enparantzan.

12:30 Presoen eskubideen aldeko bizikleta martxari ongietorria, Txankakuan. Elgoibarko Sarek antolatuta.

24 DOMEKA

10:30 Sigmako pilota txapelketa. Sigmako frontoian.

28 EGUENA

19:00 Hausnarketa eta hitzaldia. Isiltasun Eskolak antolatuta, Juan Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxeko sotoan.

Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)



'La pequeña Suiza'
23 zapatua: 22:30



'Greenland:
el último refugio'
29 barikua: 22:30



Eta, Debabarrenean zer?

Soraluzeko jaiak

Gaur hasiko dira Soraluzeko jaiak, eta datozen egunetarako egitarau zabala antolatuta dute. Musika, kirola eta kultur ikuskizunak izango dira aukeran.



Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko eta **MENDAROKO**
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

22 BARIKUA
Egunez
Garitaonandia
Iluntzean
Garitaonandia

23 ZAPATUA
Egunez
Arriola
Iluntzean
Arriola

24 DOMEKA
Egunez
Arriola
Iluntzean
Arriola

25 ASTELEHENA
Egunez
Barrenetxea
Iluntzean
Barrenetxea

26 MARTITZENA
Egunez
Yudego
Iluntzean
Yudego

27 EGUAZTENA
Egunez
■ **Oruesagasti**
Iluntzean
Arriola

28 EGUENA
Egunez
Barrenetxea
Iluntzean
Barrenetxea

29 BARIKUA
Egunez
■ **Ibañez**
Iluntzean
Barrenetxea

■ Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauez:
22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106




Maria Luisa Arcarazo Arrieta

2022ko uztailearen 10ean hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Beatriz Fernandez Lazpita


2022ko uztailearen 13an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Itziar Andonegi Milikua

2022ko uztailearen 17an hil zen, 69 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Aste honetako erretratu zaharra Arantza Berasaluzek ekarri du BARRENEKO erredakziora. Mendaroko santanetan ateratakoa da, 1955. urtean. Garai hartan ez zuten zapirik janzten lepoan; ohitura hori berriagoa dela azaldu du.

Atzean: Karmentxu Mitxiltorena (✚), Rosa Mari Urain, Mari Isabel Mitxiltorena (✚), Mari Tere Mendikute (✚), Presen Urruzola (✚) (atze-atzean, erdi ezkutuan), Jose Mari Larrea (✚). Aurrean: Mari Carmen Acha, Fulgencia Muguruza, Maria Pilar Arrieta, Mari Paz Arriola eta Arantzazu Berasaluze.



50 urte ondoren...

1972



2022



50 urte ondoren, erretratu bera errepikatu du lagun talde honek. Ekainaren amaiera aldera pintxo-potean ari zirela erabili zituzten gaztaroko kontuak, eta bururatu zitzairen polita izango zela 50 urteren ondoren, umetako argazki hura errepikatzea. Esan eta egin. 1972ko maiatzean ateratakoa da lehenengo argazkia, eta 2022ko uztailaren 7an atera zuten bigarrena, leku berean. Plaza Txikian aterata dago argazkia, eta erretratu batetik bestera ikusi daiteke aldaketaren bat, zuhaitzen falta esaterako. Autoak ere gaur egun modernoagoak dira, baina ingurua bestela, ez da asko aldatu. Jantziak ere errespetatu dituzte, eta bik ez beste guztiek C.D. Elgoibarko elastikoa jantzi dute. Gogora ditzagun zein diren argazkiko protagonistak:

Goian:

- Iñaki Elizburu
- Bernardo Intxausti
- Aitor Kapanaga
- Ramon Fernandez de Jauregui

Behean:

- Inazio Mugerza
- Endika Gonzalez
- Jon Peli Uriguen
- Gaizka Argarate



Erreserbak:
943 575 278



San Bartolome jaietarako menuak:

- Askotariko kroketak (urdaiazpikoa, odolkia eta onddoak)
- Santixo tomatearekin egindako salmorejoa
- Burrata-entsalada
- Tenperatura baxuan eginiko masailak
- Gazta-tarta hotza
- Ardo zuria, krintza eta kafea

40€

- Askotariko kroketak (urdaiazpikoa, odolkia eta onddoak)
- Santixo tomatearekin egindako tartarea
- Txipiak bere tintan
- Mandarina eta marakuiaren sorbetea
- Tenperatura baxuan egindako arkume-belaunpea
- Gazta-tarta hotza
- Ardo zuria, krintza eta kafea

54€

Asador
ibai-ondo



943 256 028

*Egin San Bartolome jaietarako
zuen erreserbak!*

Aurten bai!

LANBROA

SanMiguel

943 740 806

MENU LANBROA 1

- Iberikoak
- Patea
- Frijituak

Bigarrena aukeratzeko

- Azpizuna
- Masailak bere saltsan
- Bakailoa tomatearekin
- Legatza labean erreta

Ardoa eta freskagarriak

MENU LANBROA 2

- Iberikoak
- Frijituak
- Txerri saiheskia erreta
- Postrea

Ondo pasa jaietan!

Gabi
jatetxea

943 741 230

**Sarbartolomeetarako
egin zure erreserba!
Ez geratu lekurik gabe,
aurten bai!**